

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEGUTIOKO UDALA

#### **Behin betiko onarpena ematea Larrabeako urbanizazioko etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantzari**

2016ko maiatzaren 12ko aparteko bilkuran hasierako onarpena eman zitzaien Legutioko Larrabeako urbanizazioko etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa arautzen duen zerga ordenantzari, eta zerga ordenantza hori jendaurrean egon zen bitartean haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onartzen da, bai eta oso-osorik argitaratu ere, indarrean sar dadin, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarrienak, 70.2 artikuluan eta uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunen oinarriak arautzen dituenak, 16. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

#### I. Xedapen orokorra

##### **1. artikulua**

Legutioko Udalak, Arabako lurralde historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritik, etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ezartzen eta eskatzen du, ordenantza honen arabera, zeinaren zati baita tarifak jasotzen dituen eranskina. Ordenantza honen aplikazio eremua Legutioko udalerriko Larrabea urbanizazioa izango da.

#### II. Ordaintzera behartuta daudenak

##### **2. artikulua**

Instalazioak eta zerbitzuak erabiltzen dituztenak daude ordaintzera behartuta. Hornidura sarearekin lotu behar den etxebizitzaren titularrak ordainduko ditu edateko uraren banaketa sarera eta saneamendu sarera lotzeko eskubideak. Harpidedunak eta udalak hornitze kontratua izenpetu eta kontagailua jarri aurretik ordainduko da ordaindu beharreko zenbatekoa. Gainerako hartuneak (askak eta abar), hartunearen eskatzaileak ordainduko ditu.

#### III. Zerbitzua

##### **3. artikulua**

Erabiltzaileen edo harpidedunen eta toki administrazioaren arteko harremanak ekonomiko-administratiboak dira, zeinahi dela ere toki administrazioak zerbitzua emateko hautatzen duen kudeaketa sistema eta zeinahi dela ere Larrabeako urbanizazioko herritarren beharrak asetzeko erabiltzen dituen langileak eta instalazioak zerbitzura atxikitzeko era.

##### **4. artikulua**

Udalak antolatuko du zerbitzua, eta publizitatea emango dio antolaketa horri; izendapen agiriak emango zaizkie zerbitzura atxikitako langileei, erabiltzaile guztiek ezagut ditzaten eta horren bermea izan dezaten.

Jabari publikoak dira zerbitzuaren obrak eta instalazioak. Bestalde, zerbitzua egokia izan dadin, udalari dagokio inbertsio planen bidez ur emaria areagotzea, emari horren kalitatea hobetzea eta saneamendu sarearen eta arazketa sistemaren banaketa egokia egitea.

##### **5. artikulua**

Eskatzaileak udaleko zerbitzu teknikoek adierazten dizkieten arauetara jarraituz egingo ditu sare nagusira lotzeko lanak. Hartunea bide publikoetatik edo ezarritako zortasun zonetatik egingo da, eta eskatzaileak, era berean, zanga jarriko du berriro, udalaren arauetara jarraituz.

Hartuneak sortutako gastuak eskatzailearen kontura izango dira. Zerbitzuaren erabiltzaileak, higiezinaren eraikitzaileak edo finkaren jabeak kontratatuko ditu hartune adarraren edo, hala badagokio, hodi biltzailearen ezaugarriak eta hura instalatzeko, mantentzeko eta maneiatzeko lanak, betiere udaleko zerbitzu teknikoan ikuskatze aginpidearen menpe eta aldez aurretik dagokion obra baimena aurkeztuta.

Era berean, saneamendu sarea egin ondoren, hura udalarena izango da, eskatzailearen finkaren barruan dagoen zatia izan ezik.

#### **6. artikulua**

Zerbitzuak ez du izango irabazteko xederik, baina mantendu egin beharko da aurrekontuaren oreka, udalak onartutako tarifa beregainak ezarrita.

#### **7. artikulua**

Erabiltzaileak, zerbitzua erabiltzean, agindu hauek beteko ditu:

1. Bere kontsumo eta premietarako baino ez erabiltzea ura, eta neurri gabeko kontsumoa, zarrastelkeria edo beharrik gabeko kontsumoak saihestea, hartara ahalik eta ur gehien egon dadin eskura, ur horniduraren erabiltzaile guztien hobe beharrez.

2. Udalari al bait arinen jakinaraztea instalazio publikoan antzematen den matxura oro, batez ere matxurak isuria eragiten badu, edo edateko ura edo hondakin urak galtzea, edo saneamendu sareko hodiak itotzea. Norbere etxe barruko instalazioan gertatzen diren matxurak ere al bait arinen konpontzen ahaleginduko da.

3. Kontagailua ezin du norberak aldatu, ez eta urez hornitu beste pertsona edo entitate batzuk, ura abonatuaren ustezko maizter edo errentarien artean banatu edo polizaren baldintzak aldatu ere.

4. Langileei eta, udalekoak izan ez arren, udalekoak kreditatutako langileei erraztea eta ahalbidetzea haiek egin beharreko lanak; horretarako, polizan sartuta dagoen sare, instalazio, finka, etxebizitza, lokal edo eremura sartzeko utziko zaie, hornidura eta saneamendu sistemak ikuskatzeko edo kontagailua irakurtzeko.

5. Udalari berorrek eskatutako datuak ahalik eta zuzenen ematea, datuok zerbitzuei edo zerbitzu horiekin zerikusia dutenei buruzkoak badira.

6. Isurketak muga eta baldintza kualitatibo zein kuantitatiboan barruan egitea, hain zuzen ere, indarrean dagoen legediak eta Legutioko Udalak onartzen dituen arauak ezarritakoen barruan.

7. Ezin izango da isuri saneamendu saretik gai arriskutsurik, hondakin toxikorik edo araudi bereziek araututakorik, edo aplikagarri den legedi orokorrak ezarritako ezaugarriak edo ezaugarri bereziak betetzen ez dituen gairik, ez eta hiri hondakin edo antzekorik ere, nahiz eta aldez aurretik birringailuetatik igaroarazitakoak izan.

8. Arreta areagotu egin behar da iturburuetatik hurbil dauden inguruetan, eta ezingo da isuri gairik kontsumorako ura uhertu, kutsatu edo pozoitu dezakeenik, ez zuzenean eta ez iragazita, ez eta ur hori uhertu dezakeen jarduerarik egin ere.

#### **IV. Harpidetza polizak**

#### **8. artikulua**

Edateko urez hornitzen duen zerbitzua edo hondakin uren saneamendu zerbitzua erabili nahi duen pertsona edo erakunde orok udalari eskatuko dio baimena, eta instalazioek bete beharrekoak jakinaraziko dizkio. Eskaera egiten duena ez bada finkaren jabea, jabearen baimen idatzia aurkeztuko du.

#### **9. artikulua**

Uraren eta/edo saneamenduaren erabiltzaileak harpidetza polizak sinatu arte, ez da ez ur hornidurarik ez saneamendurako hartunerik egingo.

**10. artikulua**

Zerbitzuak harpidedunekin izenpetuko du beti hornitze kontratua, baldin eta, instalazio horiek jarri behar diren finken jabeak edo edukitzaileak, harpidedunak izan ezean, ezinbestekoak diren instalazioak bere kargura egiteko beharrezkoak diren baimenak lortzen baditu.

**11. artikulua**

Harpidetza polizek ez dute epe mugarik izango, baina erabiltzaileak, zerbitzua utzi nahi izanez gero, jakinarazi beharko du hornitze kontratua bukatutzat eman nahi duela, baja eman baino hilabete lehenago.

Hornitze eta/edo saneamendu zerbitzuen kontratua hauetako edozein arrazoiengatik azkendu da:

1. Harpidedunak berak formalki eskatzen badu etetea, eta hori egiaztatuko da udalean eskaera idatzia aurkeztuz, finkaren titularrak berak edo legez baimendutako pertsonaren batek sinatuta. Eteteak sortutako gastuak harpidedunak ordainduko ditu.

2. Kontratuak epe jakin baterako balioa izanik, epe hori bukatzen bada.

3. Polizaren titularrak jabetza edo erabilera eskubideak galtzen baditu zerbitzuak jasotzen dituen lokal, finka edo esparruaren gainean. Betebehar ekonomikoei dagokienez, udalarekin zorrik ez duen abonatuak, berriz, lokal bera erabiliko duen pertsonari eskualdatu ahal izango dio poliza kontratatutako baldintza beretan.

**12. artikulua**

Zerbitzuan baja eman ondoren hornidura berriro hasi nahi izanez gero, beste harpidetza poliza bat izenpetu beharko da.

## V. Hornidura

**13. artikulua**

Zerbitzuak harpidedunarekin batera ezarriko ditu kontagailuaren neurriak eta ezaugarriak, kontuan hartuta urez hornituko den higiezinaren, lokalaren edo eraikinaren baldintzak.

**14. artikulua**

Erabiltzaileak ezingo du aldatu jasotzen duen uraren erabilera, aldez aurretik beste helburu baterako harpidetza poliza izenpetu gabe. Erabiltzaileak, era berean, ezingo du funtsezko aldaketarik egin instalazioaren ezaugarrietan, ez eta kontagailua bere kabuz aldatu edo ordezkatu ere; ezingo die, orobat, urik eman beste pertsona edo erakunde batzuei, ez eta hornidura banatu ere harpidedunaren ustezko maizter edo errentarien artean.

**15. artikulua**

Modu hauetan hornitu ahalko da edateko urez:

1. Etxeko erabilerarako kontagailuaren bidez, hau da, elikadurarako eta norberaren garbiketa eta higienarako kontagailuaren bidez.

2. Industria erabileretarako kontagailuaren bidez:

a) Ura higieze garbiketarako bakarrik erabiltzen duten industria eta saltokiak.

b) Ura osagai edo lehengai gisa erabiltzen duten industriak (okindegiak, etxaldeak...); hau da, fabrikazio prozesuan.

Aurreko ataletan sartzen ez diren erabileren kasuan, diren industriako erabilerarako, erabilera publikorako zein etxerako, zerbitzuak kasu bakoitzean proposatuko du, eman zaizkion datuen arabera, zein den ezarri beharreko ur emaria, eta emari horren arabera zehaztuko dira baldintzak eta tarifak.

**16. artikulua**

Zerbitzua ez dago behartuta nekazaritzarako ura ematera, ez eta lore, lorategi edo zuhaitz ustiapenatarako eta igerilekuetarako ere. Harpidetza poliza horiek baimentzeko, nahitaezkoa da zerbitzuak hornidura horietarako beharrezkoak diren ur emari handiak edukitzea; kasu horietan, industriarako tarifaren arabera kobratuko da kontsumoa.

**17. artikulua**

Harpidedunei ur hornidura etengabea eskainiko zaie. Ordenantza honetan xedatutako kasuetan baino ezingo zaio eten ur hornidura harpidedunari.

**18. artikulua**

**Aurreko artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, kasu hauetan eten ahal izango da hornidura:**

1. Hornitzea ezinezko egiten duen matxuraren bat gertatzen bada zerbitzuaren edozein instalaziotan.
2. Ur emari erabilgarria galtzean edo gutxitzean, nolabaiteko gabezia sortzen bada ur horniduran, ur bilketan edo uraren presioan.
3. Biztanleria handitzeak desoreka sortzen badu dauden horniduren eta kontsumo beharren artean, harik eta hornidura horiek handitu arte.
4. Hornidura baldintzak hobetzeko beharrezkoak diren instalazioetako obrek, konponketek edo hobekuntzek irauten duten bitartean.

**19. artikulua**

Baliabideak kontuan hartuta, zerbitzuak, egoeraren larritasunaren arabera, ahalik eta azkarren jakinaraziko die harpidedunei hornidura berehala eten edo murriztuko duela, bai eta zerbitzua etenda egongo den denbora zehaztu ere. Larrialdi kasu garbietan edo ezinezkoa izan denean bakarrik utz dezake zerbitzuak bete gabe anomaliaren berri izan duen unean bertan ohartarazpena egiteko betebeharra; horrelakoetan, gerora egin beharko du, etenaren zergati-koen eta ustez irauten lezakeen denboraren berri emanez, ahal izanez gero.

## VI. Hartuneak

**20. artikulua**

Honako hau da ur hartunea: ura edo saneamendua eramaten duen adarra, hurbilen dagoen banaketa hoditik hornitu nahi den higiezinera. Adar horren hodi eroalearen ezaugarriak izango dira hornitu beharreko ur bolumenaren eta/edo saneamenduaren arabekoak; ur hartune bakar batetik horniketa ugari egin daitezke finka berera.

**21. artikulua**

Adarraren edo hartunearen ezaugarriak, haren instalazioa, zainketa eta mantentze lanak, beraz, erabiltzaileak, higiezinaren egileak edo finkaren jabeak kontratatuko ditu zerbitzuarekin, baina beti izan behar du udalaren ikuskatze teknikoaren menpean. Adarra edo hartunea zerbitzuaren ikuskatze teknikoaren menpean jarriko da, eta eskatzailearen kontura. Edateko ura banatzen duen sarerik edo saneamendurik ez dagoen eremuetan egiten direnean eraikuntzak, eta obrak egiteko baimena udalak eman badu, sare berria eskatzailearen kontura izan dadila eska daiteke, baina zerbitzuaren ikuskatze teknikoaren menpe egin beharko da.

Aurrekoa kontuan izanik, edateko uraren hartune guztiek erregistro giltza bana izango dute bide publikoan, eta zerbitzuak bakarrik erabili ahal izango du, ezin izango baitute manipulatu ez harpidedunek, ez jabeek, ez eta hirugarren pertsonak ere. Higiezinaren fatxadan edo kontagailuan ixteko giltza bat jarriko da, eta "irekita" edo "itxita" posizioan zigitatuta egongo da. Debekatuta dago hori eskuztatzea, instalazioen barruan matxuraren bat gertatzen denean salbu. Ixteko giltzaren zigitatzea hautsiz gero, berehala eman beharko zaio horren berri zerbitzuari; bestela, hori egin duena ordenantza honetan eta indarrean dauden xedapenetan ezarritako erantzukizunen pean eroriko da.

**22. artikulua**

Oro har, adar edo hartune bat egongo da finka, eraikin edo higiezin bakoitzari zerbitzua emateko. Higiezinaren zati bateko maizter edo errentari batek hornidura berezi edo banakakoa nahi badu, eta horretarako arrazoirik badago, jar dezake hartune hori, baina udalaren aldeko txostena izan ondoren.

**23. artikulua**

Jabeek, eraikitzaileek edo erabiltzaileek ixteko giltzatik abiatuta jarriko dituzte instalazioak, hau da, finkaren fatxadatik edo mugatik aurrera. Horrela, ur ihesik egonez gero, ura, batez ere, bide publikora isuriko da, eta ez ditu kaltetuko, ez higiezina, ez barnean dauden jenero edo instalazioak, eta, halakorik gertatuz gero, erantzukizuna haiena baino ez da izango.

**24. artikulua**

Kontratua amaitutakoan edo deuseztatutakoan, adarra libre geratuko da jabearen esku; interesdunak bost egunen buruan adierazi behar dio udalari, era frogagarrian, adarra bide publikotik kentzea erabaki duela. Horrela egiten ez badu, esan nahiko du adar hori ez zaiola interesatzen, eta udalak egoki deritzen neurriak hartu ahal izango ditu.

## VII. Kontagailuak

**25. artikulua**

Edateko ur horniduraren kontagailuak eraikin edo finka bakoitzaren kanpoko aldean jarriko dira, bi harpidedun bakoitzeko; guztiak ere toki egokian eta erraz iristeko lekuan. Horretarako, kontagailuak konpartimentu edo kutxa batean egongo dira, bateria sisteman edo antzeko beste batean; horrela, zerbitzuko langile irakurleak erraz eta aldi bakar batean apuntatu ahal izango ditu kontagailu guztien zehaztasunak. Ixteko bi giltzaren artean jarriko dira kontagailuak, hartara, matxurarik gertatuz gero, zerbitzuko langileek erraz kendu eta berriro jarri ahal izan ditzaten. Kontagailutik abiatuta, hartunea zuzenean joango da harpidedunaren instalazioetara, inolako adarrik gabe. Erabat debekatuta dago kontagailu bera harpidedun batek baino gehiagok erabiltzea.

**26. artikulua**

Udalak ezarriko ditu harpidedunak erabili behar duen kontagailu mota, haren diametroa eta kokagunea. Kontagailu guztiek legez onartutako sistemetakoak izan behar dute, eta Industriako Lurralde Ordezkaritzak ofizialki egiaztatuko ditu jarri aurretik. Jarri ondoren, eta nahiz eta erabiltzailearenak izan, zerbitzuko langileek bakarrik manipulatu ahal izango dituzte; horretarako, behar bezala zigilatuko dira jartzen diren bakoitzean.

**27. artikulua**

Kontagailua baldintza onetan mantendu behar da, zainduta eta funtzionamendu egoera onean. Udalak beharrezkotzat jotzen duen egiaztatze oro egin dezake, bai eta egokitze jotzen dituen konponketak ere. Konponezina den matxuraren bat gertatuz gero, hura aldatzera behartu dezake erabiltzailea.

**28. artikulua**

Kontagailua harpidedunarena izango da, baina instalazioa udalaren zuzendaritza teknikoaren pean egingo da; matxuraren bat gertatuz gero, zerbitzuak izango du erabiltzeko eta konpontzeko eskumen osoa, baina konponketa harpidedunaren kontura izango da.

**29. artikulua**

Iruzurra izango da harpidedunak zein udalaren baimenik ez duen pertsona orok egindako edozein manipulazio, dela kontagailuan, dela hartunean dela instalazioetan, baldin eta egiten bada ura kontagailutik pasa ez dadin edo egindako kontsumoa behar bezala ager ez dadin.

## VIII. Barne instalazioak

**30. artikulua**

Kontagailutik aurrera, harpidedunak nahi duen eran bana dezake ura bere erabilerarako, eta nahi duen eran egin horretarako lanak, zerbitzuak eskulanean eta beharrezkoak diren materialetan parte hartu gabe; hala ere, zerbitzuak instalazioa ontzat eman beharko du, hornidura erabat ondo egin dela bermatzeko, eta eskatzaileari laguntza eta aholkua eman diezaioke hark eskatutako kontuetan.

Udalaren ikuskatze teknikoaren pean egongo da barruko banaketa, zuzen dagoela egiaztatu ahal izateko edozein momentutan, eta iruzurrak eta kontraturiko kontsumoan gerta daitezkeen gabeziak saihesteko.

**31. artikulua**

Harpidetza poliza bakoitzari dagozkion barneko instalazioak ezin izango zaizkio lotu beste jatorri bateko ura banatzen duen sare edo hodi bati. Era berean, ezin izango zaizkio lotu beste harpidetza poliza bati dagokion instalazioari, ez eta udalaren ura nahastu ere haren iritziz berme tekniko edo sanitariorik ez duen urarekin.

**32. artikulua**

Erabiltzaileak jar ditzake, barne banaketarako, andel hartzaile, erregulatzailerik edo erreserbakoak. Andel horiek txukun eta desinfektaturik mantendu behar dira, eta erabiltzailea izango da horiek sortutako kutsaduraren erantzule. Era berean, ura galtzea saihesteko behar diren sistema automatiko edo eskuzkoak edukiko dituzte, nahiz eta ur hori kontagailuak erregistratutakoa izan; alde horretan ardurarik gabe jokatzeko zerbitzua oztopatzea dela joko da.

**33. artikulua**

Era berean, presio ekipoak edo bestelako artikuluko teknikoak jar daitezke higiezinetan, haien ezaugarriengatik hala komeni bazaie, kontsumo aukerak orekatzearren hartune beretik ura hartzen duten harpidedunen edo barruko instalazio baten zati desberdinen artean.

Tresna horiek nahitaezkoak izango dira garaiera edo beste baldintza tekniko berezi batzuk direla-eta edateko uraren hornidura egokia bermatu ezin duten eraikinetan. Edozein prozedura tekniko erabiltzen dela ere, honako printzipio hau bermatu behar da nahitaez: edateko ura higiezinaren sarrerako hartunean kokatuta dagoen ixteko giltzatik igaro eta zuzenean pasatuko dela kontagailu guztietatik, iruzur egiteko edo zerbitzua oztopatzei aukerarik egon gabe eta aplikazio horrek sare nagusiko beste ezein harpideduni eragin gabe.

## IX. Kontsumoa

**34. artikulua**

Harpidedunak edateko ura kontsumituko du harpidetza polizan ezartzen diren baldintzen eta ordenantza honetan horniketari buruz zehaztutakoaren arabera.

**35. artikulua**

Kontagailuak erregistratzen duena hartuko da benetako kontsumotzat; kontsumo hori arauzko minimoa baino txikiagoa denean, minimo hori hartuko da kontsumituztat, kontagailuak markatzen duena gorabehera.

**36. artikulua**

Kontagailuak matxuraren bat izan duelako edo ondo ez dabilelako ezin bada jakin zenbat ur kontsumitu den, ulertuko da aurreko urteko aldi berbereko ordainagirian agertzen dena kontsumitu dela eta, horrelakorik egon ezean, azken hiru ordainagirien batez bestekoa. Oro har, benetan kontsumitu dena zenbatesteko ahalegina egingo da, baina sistema hori salbuespenezkoa izango da, eta aldi baterakoa. Horrelakoetan, udalari dagokio kontagailua ahal bezain pronto aldatzea, eta erabiltzaileari antzeman dituen akatsak zerbitzuari lehenbailehen jakinaraztea.

**37. artikulua**

Erabiltzaileren bat kontagailuak erregistratzen duen kontsumoarekin ados ez badago, udalak kontagailua aztertzeko eta egiaztatzeko eskatuko dio Industria Ordezkaritzari. Erregistratutakoa ondo badago, gastuak harpidedunak ordainduko ditu; txarto badago, berriz, okerra zuzenduko da.

**38. artikulua**

Saneamendua

Aurreko ataletan xedatutako guztiak aplikatuko zaizkio saneamendu zerbitzuari, salbu eta duten izaera bereziarengatik beren-beregi hornitze zerbitzuari dagozkionak. Horiez gain, hurrengo artikuluetan zehazten direnak ere aplikatuko zaizkio.

Aurreko paragrafoan zehaztutakoetarako, ura dela-eta baliatzen diren "hornidura", "banatze" edo "hornitze" eta abar bezalako hitzak, saneamendua dela-eta baliatzen diren beste hauen parekoak izango dira, hurrenez hurren: "huste", "saneamendu", "isuri" eta abar.

**39. artikulua**

Legutioko Udala ez dago behartuta isuri kuota eskaintzera sarearena ez den sakoneran. Isuria behezagoko kotan egin behar bada eta kota hori kolektorea baino behezagoko badago, eskatzaileak ordaindu beharko ditu hondakin urak jasotzeko ezarri beharreko gailua jartzea, mantentzea eta haren kontsumoak.

**40. artikulua**

Udalak egokien deritzon lekuan lotuko zaio saneamendu hartunea saneamendu sareari, ahal dela lehendik dauden kutxatiletan. Saneamendu hartunearen diseinuak eta eraikuntzak ziurtatu beharko dute hura estankoa dela, batez ere, saneamendu sareari lotzen zaion lekuari dagokionez.

Udalak hartunearen hasieran eta sareari lotzen zaion lekuan kutxetan jartzea eska dezake, baita emarien kontrol eta kopururako kutxetak egitea eta neurketa sistemak jartzea ere. Era berean, udalak eraikinaren barruan hartune erregistrorako kutxatilik egiteko eska dezake, berak zehaztutakoaren arabera. Dena dela, egitura aldetik irauteko moduan proiektatu eta egingo dira hartuneak, bai eta behar adinako babesarekin ere, bertatik igaroko diren uren agresibitate fisiko edo kimikoaren ezaugarriak aintzat hartuta. Hala ere, arazo teknikoak edo bestelakoak direla eta (horretarako, udalaren alde aurreko txostena beharko da), ezin bada hartunea egin estolderiaren sare orokorrera, hobi septikoa jartzeko eskatuko zaio interesdunari, eta eskatzaileak ordainduko ditu beti hura egitea, mantentzea, garbitzea edo bestelako gastuak.

**41. artikulua**

Ur beltzetarako eta euri uretarako hartune bana jartzeko eskatuko du udalak. Horietatik ur beltzera baino ezin izango zaio lotu saneamendu sareari.

X. Kobratzeko oinarriak

**42. artikulua**

Kobratzeko zenbatekoa arautzeko, ur kontsumoa eta haren erabilera hartuko dira kontuan, ordenantza honetako tarifen epigrafeetan ezarritakoarekin bat etorritik.

XI. Tarifak

**43. artikulua**

Harpidedun bakoitzak kontsumitutakoa fakturatuko du udalak, berak une bakoitzean onartutako tarifak zorrozki aplikatuz.

**44. artikulua**

Ur kontsumoa edozein dela ere, udalak tasa eta prezio hauek ere kobratuko dizkio harpidedunari: kontagailuaren zainketa, hartuneak egitea, instalazioak ikuskatzea, bide publikoan obrak egitea, lotura eskubideak eta udalak "Tarifak" izeneko epigrafean baimendutako beste edozein.

**45. artikulua**

Eranskinen daude zehaztuta tasa horien tarifak.

**46. artikulua**

Horniduraren zenbatekoaren fakturazioa hiruhilekoetan egingo zaio harpidedunari.

**47. artikulua**

Aldeetako edozeinek eskritura publikoa egiteko eskatuz gero, harpidedunak ordainduko ditu gastuak (udalarentzako kopia kautoa barne), bai eta estatuaren, autonomia erkidegoaren, probintziaren edo udalerraren aldeko edozein motatako zerga eta kontribuzioak ere, sortuak edo sortzeke daudenak, polizari dagozkionak zein, horren menpe egonik, eranskinetan eta oharretan agertzen den kontsumoari buruzkoak.

**48. artikulua**

Hornidura edo saneamendu zerbitzua dela-eta hutsegite larriren bat eginez gero, harpidetza poliza berehala deuseztatuko da, eta ur hornidura eten; egintza horiek, gainera, toki ogasunari egindako iruzurra ere izan daitezke.

**49. artikulua**

Aurreko artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, honako egintza hauek joko dira arau hauste larri:

1. Hitzartutako ur horniduraz abusatzea, justifikatutako arrazoirik gabe harpidedunaren ohiko jarduerarekin bat ez datozen ur emariak kontsumituz. Ez da justifikaturiko kausa izango harpidedunaren instalazioetan matxura edo ur ihesa egotea, kontsumoa neurririk gabe handitzea eragiten duena.

2. Erabilera txarren bidez horniduraren erregulartasuna oztopatzea, erabilera horiek beste erabiltzaile batzuen hornidura eragotz badezakete murrizketen edo hornidura mugatuen garaian.

3. Urari polizan adierazitakoaz besteko erabileraren bat ematea.

4. Zerbitzuaren baimenik gabe ura hirugarrenei ematea, dela dohainik, dela kostu bidez.

5. Zerbitzuaren ura beste aprobetxamendu batzuetatik ateratzen denarekin nahastea, batez ere nahasketaren ondorioz kutsadura arriskua sortzen bada.

6. Zerbitzuaren baimenik gabe zerbitzuko langileei ordaintzea, nahiz eta langile horiek harpidedunari egindako lanengatik izan.

7. Langileei sartzan ez uztea harpidedunaren instalazioak, ur hartuneak edo kontagailuak dauden lekuetara, baldin eta zerbitzuari iruzur egin zaiola edo zerbitzua oztopatu dela susmatzeko arrazoirik badago.

8. Kontratuaren epea amaitutakoan edo kontratua deuseztatutakoan ura kontsumitzen jarraitzea.

9. Justifikatutako arrazoirik gabe ixteko giltzak itxi edo irekitzea, zigilaturik egon edo ez.

10. Instalazioak manipulatzeko, benetan kontsumitu den ur emaria kontagailuetan erregistratua izan ez dadin.

11. Eskubide eta tasak ordaintzeari uko egitea, hain zuzen ere kontsumitu den urarekin edo edateko uraren kontsumoarekin lotutakoak, justifikatutako arrazoirik gabe.

Justifikatu gabeko kausatzat jotzen da ordainketa hiru hilabete baino gehiago atzeratzea, nola eta ez dagoen erabakitzeke erreklamazio aski funtsatu bat ordaindu gabe utzitako zenbitekoei buruz edo haien beste edozein alderdiri buruz.

12. Udalak hala eskatu eta gero, ur kontagailurik ez jartzea.

13. Murrizketak daudenean ura erabiltzea nekazaritzan, lore ustiapenetan, lorezaintzan, zuhaitzietan edo igerilekuak betetzen.



**50. artikulua**

Arau hauste arinak izango dira egiteak edo ez-egiteak, baldin eta ez badira aurreko artikuluan zehaztutakoak bezain larriak. Arau hauste arinak behin eta berriro egitea arau hauste larria izango da.

**51. artikulua**

Udalak, hutsegite arinengatik, 750 euro arteko isuna jarri ahal izango du; larriengatik, 1.500 euro artekoa; eta oso larriengatik, 3.000 euro artekoa.

**52. artikulua**

Iruzurrengatik espedientea abiaraziko da, eta toki administrazioaren arloko xedapenen arabera izapidetuko da.

Delitutzat jotzen diren egintzak, hala nola zigiluak apurtzea, instalazioak suntsitzea, urak kutsatzea eta zigor kodean jasotzen diren gainerakoak, jurisdikzio arruntean salatuko dira, eta arau hauste oso larriak izango dira.

**53. artikulua**

Zordunak indarrean den legedian ezarritako premiamendu bidean sartuta geratzen dira.

Edateko uraren hornidura edo saneamendua ordaintzeari behin eta berriro uko egiten bada, hornidura eten ahal izango da, legeak horren gainean ezarritakoaren arabera.

**54. artikulua**

Harpideduna baino ez da izango neurritz gain kontsumitu izanagatik hirugarrenei sortutako kalteen erantzule.

**XII. Xedapen gehigarriak**

Udal honek, egokitzapenaldi bat igaro ostean, beretzat gordetzen du zerga ordenantza honetan aldaketak egiteko eskubidea, lege ezarritako prozedurak betez.

Ezin izango da hartunerik egin, zoladura berrian zangak egitea eskatzen badu, 10 urte igaro arte.

**XIII. Xedapen iragankorrak**

Ordenantza hau indarrean sartzen denean sinatuta dauden kontratuak egokitu egingo zaizkie ordenantzaren xedapenei, ofizioz, eta erabiltzaileak behartuta daude bertan zehazten diren arauak betetzera; hala ere, zerbitzuak, kasuan kasu erabaki dezake harpidedunek bereganatuta dauzkaten bidezko eskubideak errespetatzea. Edonola ere, eskubide horiek iraungi egingo dira lehendik indarrean zegoen kontratua amaitzen denean.

**XIV. Azken xedapena**

2016ko maiatzaren 12ko bilkuran eman zitzaien hasierako onarpena ordenantza honi eta haren eranskinari.

**Ordenantzaren eranskina****A. Ur homiduraren tarifa:**

tarifa seihilekkoa izango da.

1. Etxeko tarifa: etxeak edateko urez hornitzea

— Zerbitzu kuota: 9,00 euro/kontagailu.

— Kontsumo kuota:

25 metro kubo edo gutxiago: 0,30 euro / metro kubo.

25-50 metro kubo: 0,60 euro / metro kubo.

50 metro kubo edo gehiago: 1 euro / metro kubo

2. Etxeko tarifa. Ureztatzeko urez hornitzea

– Zerbitzu kuota: 9,00 euro/kontagailu.

– Kontsumo kuota:

Kuota aldagarria: 0,35 euroko tarifa metro kuboko.

3. Kirol instalazioetako tarifa. Edateko uraren hornidura

– Zerbitzu kuota: 30,00 euro/kontagailu

– Kontsumo kuota:

2.500 metro kubo edo gutxiago: 0,60 euro / metro kubo.

2.500-5.000 metro kubo: 1,00 euro / metro kubo.

5.000 metro kubo edo gehiago: 1,70 euro / metro kubo

4. Kirol instalazioetako tarifa. Ureztatzeko uraren hornidura

– Zerbitzu kuota: 80,00 euro/kontagailu.

– Kontsumo kuota:

Kuota aldagarria: 0,65 euroko metro kuboko.

#### **B. Hondakin uren saneamenduaren tarifa:**

Tarifa sei hilabeterik behin kobratuko da, eta ur kontsumoaren ordainagiri berean egongo da. Saneamendu zerbitzua daukaten kontagailuetarako bakarrik.

1. Etxeko tarifa.

– Zerbitzu kuota: 12,50 euro/kontagailu.

– Kontsumo kuota:

Kuota aldagarria: 0,35 euroko tarifa metro kuboko.

2. Kirol instalazioetako tarifa.

– Zerbitzu kuota: 75,00 euro/kontagailu.

– Kontsumo kuota:

Kuota aldagarria: 0,35 euro metro kuboko.

Legutio, 2016ko ekainaren 21a

*Alkatea*

**NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA**